



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 12a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00007. Interpelazioa, osasun mentalaren arloan Osasun Departamentuak darabiltzan politikei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00096. Galdera, Kulturaren II. Plan Estrategikoaren prestaketari buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (4. or.).

—11-24/POR-00097. Galdera, Kulturaren II. Plan Estrategikoaren finantzaketari buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00098. Galdera, Arte Garaikideari buruzko Nafarroako Planaren prestaketari buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00099. Galdera, Iruñeko 2024ko Topaketei buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00100. Galdera, Oinarriko Osasun-laguntzan psikologia ezartzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00101. Galdera, Nafarroa pobrezia-tasarik txikiena duen erkidegoa dela adierazi izanari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).

—11-24/POR-00102. Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioaren epaiari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00103. Galdera, garapenerako lankidetzaren arloan 2023an zehar egindako ekintza nagusiei buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00104. Galdera, despopulazioari eta lurralde kohesioari buruzko foru legearen prestaketari buruzkoa. Ramón Alzorri Goñi jaunak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00105. Galdera, aurrekontuei buruzko legearen bozketaren emaitza ezagututa 50 parlamentari bi astez lanean edukitzei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/POR-00106. Galdera, jakiteko ea zer irizpide baliatu den 2024ko aurrekontuetan 0tik 3 urtera bitarteko hurrak dituzten familiendako 100 euroko laguntzako partida bat ez sartzeko. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00107. Galdera, iragan legegintzaldian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesional guztiekin hartutako konpromisoak betetzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00108. Galdera, jakiteko ea Foruzaingoak zer egin zuen martxoaren 7an Nafarroako Parlamentura indarrez sartzeko saiakeraren aurrean. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00109. Galdera, jakiteko ea nork proposatu zuen nahitaezko erretiroa hartzeko betekizunaz salbustea, hiru urtez jarraian, Belateko tunelen adjudikazioaren ardura zuen funtzionarioa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00110. Galdera, Mobis Spain Electrified Powertrain SLUK eta VGP (PARK) España 17, SLk sustatutako "VW Next EV plataformarako bateria-sistema" inbertsio proiektuak ingurumenean izanen duen eraginari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00111. Galdera, Pedro Sanchez lehendakariak eta EH Bilduk Nafarroari dagokionez lortutako akordioei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00112. Galdera, defizit-helburua eta Nafarroak Estatuaren zorra dela-eta egin beharreko ekarpena negoziatzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00113. Galdera, nekazariak Nafarroan dauzkaten arazoak konpontzeko neurriei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00114. Galdera, genero-berdintasunaren zeharkakotasunaren bermeei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00115. Galdera, Amnistiaren Legea onetsi ondoren nafarrek bizi duten desberdintasun-egoerari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00116. Galdera, bizikidetzaren garrantziari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00118. Ezhoiko galdera, Moves Plana dela-eta hasieratik emandako laguntzen zenbatekoei buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa (11-24/PEI-00184) buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (16. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).
- 11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).
- 11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00007. Interpelazioa, osasun mentalaren arloan Osasun Departamentuak darabiltzan politikei buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako interpelazioa, osasun mentalaren arloan Osasun Departamentuak darabiltzan politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Daniel López Córdoba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, 2024ko martxoaren 14 Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Denbora luzez ahaztuta egon ondoren, azken urteotan eztabaida politikoaren erdigunean dago osasun mentala. Denok dugu nahasmendu mentalarekin bizitzeko arriskua, bestelako osasun-arazo askorekin gertatzen den modu berean.

Hori dela-eta, Departamentuak osasun mentalaren arloan darabiltzan politikei buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Osasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00096. Galdera, Kulturaren II. Plan Estrategikoaren prestaketari buruzkoa

ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Kulturaren II. Plan Estrategikoaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kulturaren II. Plan Estrategikoaren garapena IV. fasean baitago, I. planaren ebaluaziotik heldu diren zer neurri eta proposamen zehatz jasoko dira honetan?

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00097. Galdera, Kulturaren II. Plan Estrategikoaren finantzaketari buruzkoa

ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Kulturaren II. Plan Estrategikoaren finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-ko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kulturaren II. Plan Estrategikoaren garapena IV. fasean baitago, nola finantzatuko dira proiektu estrategikoak eta zer irizpide baliatuko liriateke finantzaketa horri begira?

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00098. Galdera, Arte Garaikideari buruzko Nafarroako Planaren prestaketari buruzkoa

ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Arte Garaikideari buruzko Nafarroako Planaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-ko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut kontseilariak iragarri duen Nafarroako Arte Garaikidearen Planaren taxuketari buruz: Zertan da plan hori eta zeintzuk dira planteatzen dituen erronkak eta helburuak?

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00099. Galdera, Iruñeko 2024ko Topaketei buruzkoa

ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Iruñeko 2024ko Topaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024 honetan Iruñeko Topaketak berriz egitea aurreikusten da. Hori horrela, zer berritasun dakar 2022an egin zen aurreko edizioaren aldean eta nola ari da egituratzen oraingoan aurrekontua?

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00100. Galdera, Oinarrizko Osasun-laguntzan psikologia ezartzeari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Oinarrizko Osasun-laguntzan psikologia ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

EH Bilduk proposatuta, 2022ko aurrekontuetan 900.000 euroko partida bat sartu zen Oinarrizko

Osasun-laguntzan psikologia ezartzeko. 2022ko ekainean, Osasun Departamentuak jakitera eman zuen Psikologia ezarri zela Oinarrizko Osasun Laguntzan, eta horretarako Psikologiako profesional bat lanean hasi zela Antsoango, Txantreako eta Arrotxapeko oinarrizko eskualdeetan, eta balorazioa ona zenez gero Nafarroa osora hedatu zela.

Hala ere, badakigu zailtasunak daudela behar diren baliabide profesional guztiak lortzeko, lan-arazoak daudela horiek kontratatzeko, eta lan-baldintza desberdinak dituztela haien kualifikazio-maila zein den (Psikologia Klinikoa edo Psikologia Sanitario Orokorra).

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Osasun Departamentua zer neurri ari da ezartzen edo zer neurri ezarriko du Oinarrizko Osasun Laguntza osora hedatzeko laguntza psikologikoa, hala helduena nola haur eta gazteena, eta laguntza horretan eta psikologiako profesionalen lan-baldintzetan ekitatea bermatzeko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/POR-00101. Galdera, Nafarroa pobrezia-tasarik txikiena duen erkidegoa dela adierazi izanari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroa pobrezia-tasarik txikiena duen erkidegoa dela adierazi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak orain dela gutxi adierazi zuen Nafarroa dela pobrezia-tasa txikiena duen erkidegoa. Zer iturritan oinarritu zen ondorio horretara heltzeko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/POR-00102. Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoaren epaiari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoaren epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

an, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako eta Berdintasuneko kontseilari Félix Taberna Monzón jaunak hoz erantzun dezan:

Orain dela bi aste jakin genuenez, Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak aho batez ezetsi du bigarrenez –lehenbizikoz, urtarrilean ezetsi zuen, Voxen errekurso bati erantzunez– Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoa, zeina Diputatuen Kongresuko talde parlamentario popularrak aurkeztu baitzuen. Xedapen horrek ezartzen du foru-araubidea duten autonomia-erkidegoek –Euskadik eta Nafarroak– presazio horren kudeaketa eta ordainketa hartuko dutela beren gain, Estatuarekin hitzarmen bat sinatu ondotik.

Epaiaren garrantzia ikusita, zer balorazio egiten du Gobernuak hori dela-eta?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-24/POR-00103. Galdera, garapenerako lankidetzaren arloan 2023an zehar egindako ekintza nagusiei buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, garapenerako lankidetzaren arloan 2023an zehar egindako ekintza nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zure departamentuak zer balorazio egiten du garapenerako lankidetzaren arloan 2023an zehar egindako ekintza nagusiei buruz eta zer aurrekontu egon da ekintza horiek egiteko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00104. Galdera, despopulazioari eta lurralde kohesioari buruzko foru legearen prestaketari buruzkoa

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako galdera, despopulazioari eta lurralde kohesioari buruzko foru legearen prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Lurralde Kohesiorako Departamentua zer esparrutan ari da lanean despopulazioari eta lurralde kohesioari buruzko foru legearen prestaketeko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

11-24/POR-00105. Galdera, aurrekontuei buruzko legearen bozketaren emaitza ezagututa 50 parlamentari bi astez lanean edukitzeari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, aurrekontuei buruzko legearen bozketaren emaitza ezagututa 50 parlamentari bi astez lanean edukitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako kontseilariak 2024ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Beharrezkoa al zen 50 parlamentari bi astez lanean edukitzea, aurrekontuen legearen bozketaren emaitza zein izanen zen lehendik jakinda?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00106. Galdera, jakiteko ea zer irizpide baliatu den 2024ko aurrekontuetan 0tik 3 urtera bitarteko haurrak dituzten familiendako 100 euroko laguntzako partida bat ez sartzeko

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak egindako galdera, jakiteko ea zer irizpide baliatu den 2024ko aurrekontuetan 0tik 3 urtera bitarteko haurrak dituzten familiendako 100 euroko laguntzako partida bat ez sartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako María Jesús Valdemoro Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer irizpide baliatu da 2024ko aurrekontuetan 0tik 3 urtera bitarteko haurrak dituzten familiendako 100 euroko laguntzako partida bat ez sartzeko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

11-24/POR-00107. Galdera, iragan legegintzaldian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesional guztiekin hartutako konpromisoak betetzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, iragan legegintzaldian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesional guztiekin hartutako konpromisoak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Osasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak noiz beteko ditu iragan legegintzaldian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesional guztiekin hartutako konpromisoak?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00108. Galdera, jakiteko ea Foruzaingoak zer egin zuen martxoaren 7an Nafarroako Parlamentura indarrez sartzeko saiakeraren aurrean

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, jakiteko ea Foruzaingoak zer egin zuen martxoaren 7an Nafarroako Parlamentura indarrez sartzeko saiakeraren aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, 2024ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Martxoaren 7an Nafarroako Parlamentura Osoko Bilkura egiten ari zen bitartean indarrez sartzeko saiakeraren aurrean, zein dira Foruzaingoak egindako jarduketak?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-24/POR-00109. Galdera, jakiteko ea nork proposatu zuen nahitaezko erretiroa hartzeko betekizunaz salbuestea, hiru urtez jarraian, Belateko tunelen adjudikazioaren ardura zuen funtzionarioa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, jakiteko ea nork proposatu zuen nahitaezko erretiroa hartzeko betekizunaz salbuestea, hiru urtez jarraian, Belateko tunelen adjudikazioaren ardura zuen funtzionarioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Nork proposatu zuen nahitaezko erretiroa hartzeko betekizunaz salbuestea, hiru urtez jarraian, Belateko tunelen adjudikazioaren ardura zuen funtzionarioa?

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/POR-00110. Galdera, Mobis Spain Electrified Powertrain SLUk eta VGP (PARK) España 17, SLk sustatutako "VW Next EV plataformarako bateria-sistema" inbertsio proiektuak ingurumenean izanen duen eraginari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Mobis Spain Electrified Powertrain SLUk eta VGP (PARK) España 17, SLk sustatutako "VW Next EV plataformarako bateria-sistema" inbertsio proiektuak ingurumenean izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

2024ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko Mobis Spain Electrified Powertrain SLUk eta VGP (PARK) España 17, SLk sustatutako inbertsio proiektua. "VW Next EV plataformarako bateria-sistema" izeneko proiektu hori Noainen (Nafarroa) egitekoa da. Planta horrek bateriez hornituko du Arazuriko Landaben industrialdean dagoen VW Navarra lantegia, 15 kilometrora baitago.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Gobernuak kontuan hartu al du, proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko, horrek zer eragin izanen duen ingurumenean?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00111. Galdera, Pedro Sanchez lehendakariak eta EH Bilduk Nafarroari dagokionez lortutako akordioei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Pedro Sanchez lehendakariak eta EH Bilduk Nafarroari dagokionez lortutako akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak martxoaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak ezagutzen al zituen Sánchezek eta EH Bilduk Nafarroari dagokionez lortutako akordio guztiak?

Iruñean, 2024ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00112. Galdera, defizit-helburua eta Nafarroak Estatuaren zorra dela-eta egin beharreko ekarpena negoziatzeari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, defizit-helburua eta Nafarroak Estatuaren zorra dela-eta egin beharreko ekarpena negoziatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den ostegunean –martxoaren 14an– Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroak itxi ditu 2024ko aurrekontuak, eta hori albiste ona da herritarrentzat egonkortasun politiko eta ekonomikoari begira. Zehazteke daude, ordea, Estatuarekin negoziatu beharreko bi aldagai: urte honetarako defizit-helburua eta Nafarroak Estatuaren zorra dela-eta egin beharreko ekarpena, baldin eta Kataluniarekiko akordioa finkatzen bada eta beste autonomia-erkidego batzuetara zabaltzen bada.

Gobernua noiz bilduko Ogasun Ministerioarekin bi kontu horiek negoziatzeko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00113. Galdera, nekazariak Nafarroan dauzkaten arazoak konpontzeko neurriei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, nekazariak Nafarroan dauzkaten arazoak konpontzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer neurri hartuko du nekazariak Nafarroan dauzkaten arazoak konpontzeko?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00114. Galdera, genero-berdintasunaren zeharkakotasunaren bermeei buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, genero-berdintasunaren zeharkakotasunaren bermeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko

kontseilariak 2024ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Martxoaren 8an berriz bizi izan dugu Nafarroa kaleetan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna aldarrikatzen duen gizarte baten aldarria. Milaka pertsona batu ziren borroka horretara, zeren eta egia den arren aurrerabidea handia izan dela, aitzina egiten jarraitzeko ezinbestekoa da erakundeek eta gizarteak bat egitea, helburua lortzetik oso urrun baikaude oraindik. Helburua lortzeko, ezinbestekoa da ulertzea berdintasunak berriazko politika izan behar duela, baina, batez ere, zeharkako politika bat izan behar duela, Gobernuaren politika publiko guztiak zipriztinduko dituena. Hori uste dugulako, honako hau galdetzen dut:

Nafarroako Gobernuak nola bermatuko du genero-berdintasunaren zeharkakotasuna eta, hortaz, genero-ikuspegia baliatuko dela politika publiko guztiak, diseinatu, bete eta ebaluatzean?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Miguel José Garrido Sola

11-24/POR-00115. Galdera, Amnistiaren Legea onetsi ondoren nafarrek bizi duten desberdintasun-egoerari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Amnistiaren Legea onetsi ondoren nafarrek bizi duten desberdintasun-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariaren ustez, Amnistiaren Legeak, zeinaren irizpena jada onetsi baita, desberdinkeria-egoeran utziko ditu nafarrak Espainiako beste herritar batzuen aldean?

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/POR-00116. Galdera, bizikidetzaren garrantziari buruzkoa*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, bizikidetzaren garrantziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

20 urte joan dira M11-tik. Horregatik galdetzen dizugu zure gobernuak bizikidetasunari ematen dion garrantziaz.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00118. Ezhoiko galdera, Moves Plana dela-eta hasieratik emandako laguntzen zenbatekoei buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa (11-24/PEI-00184)*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Moves Plana dela-eta hasieratik emandako laguntzen zenbatekoei buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa (11-24/PEI-00184).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2024ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Ana María Elizalde Urmeneta andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 16.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, eskatu du deitzen den lehenengo Osoko Bilkuran sar dadin ezohiko galdera bat, Moves Plana dela-eta hasieratik emandako laguntzen zenbatekoei buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa (11-24/PEI-00184).

Aipatu artikuluekin eta Erregelamenduko 42.1 seigarrena eta zazpigarrena artikuluekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako ezhoiko galdera, Moves Plana dela-eta hasieratik emandako laguntzen zenbatekoei buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa (11-24/PEI-00184).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den lehenengo Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko martxoaren 21eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako

kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko martxoaren 21eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. José Iruetagoiena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kon-

tseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko martxoaren 21eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

